

**UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (A eredua)
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (A aukera)
2008/2009 IKASTAROA**

ARGIBIDEAK:

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.

Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

Zentsura hitza entzuten dugunean ideia bat datorkigu burura: zenbait herrialdetan gobernuak ez dió jendeari bere iritzia adierazten uzten eta, horretaz gain, komunikabideetan informazioa manipulatu egiten da, errealitatea desitxuraturik aurkeztuz. Herrialde demokratikoetan, era honetako zentsurarik ez dugu onartzen, nahiz eta jende askok erabiltzen dela uste izan.

Hala ere, zentsuraz ari garenean, ez duzu arrazoi politikoetan bakarrik pentsatu behar. Horrez gainera, beste hainbat arrazoi egon daitezke liburuaren, egunkariaren edo pelikulen edukia zentsuratu behar dela pentsatzeko. Jende askoren ustez, zenbait pelikula edota telebista saiotan biolentzia gehiegi erakusten da eta, horregatik, zentsuratu egin behar lirateke. Bestalde, argitaratzen dena kontrolatzea justifikatua dago, esaterako, pertsonen bizitza pribatua babesteko edo inoren kalumniak galarazteko erabiltzen denean. Era berean, estatuaren ziurtasuna zaintzeko, adibidez, zenbait dokumentu sekretupean gorde beharra dagoela esaten dute behin eta berriz gobernuak.

Zer zentsuratu edo kontrolatu behar den erabakitzean sortzen da arazoa. Izan ere, umeei biolentzia erakustea kaltegarria dela gehienok uste izan arren, zaila da zentsuratzeko **modukoa** zer den esateko orduan **denok** bat etortzea. Horren adibide ugari aurki ditzakegu historian zehar. Estatu Batuetan, esaterako, McCarthy senadorearen **garaian,** komunisten aurkako kanpainan, “Txanogorritxo” ipuina debekatu zen umeentzako egokia ez izateagatik, neskatilaren arropak gorriak baitziren. Kontua hau da: sarritan zentsuratzaileek ona eta txarra bereizten dakiten bakarrak beraiek direla pentsatzen dute, eta beste guztiek beren iritzia onartu egin behar dute.

Honelako jarrerak ikusirik, oso erraza da edonolako zentsura txarra dela pentsatzea. Argi dago, ordea, zenbait kasutan kontrola **beharrezkoa** dela eta,aldi berean, ukaezina da zentsuratzaileek gizartearen kontrolpean egon behar dutela, eta ez alderantziz.

Ulermen galderak

1. Noren jarrera gaitzesten da testuan? Zergatik? (Puntu bat)
2. Noiz justifika daiteke zentsura? (Puntu bat)
3. Zentsurari dagokionez, gobernu guztiek berdin jokatzeko al dute? (Puntu bat)

Gramatika galderak

4. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik dauden perpausak, egitura honi jarraiki (Puntu bat):

Nahiz eta jende askok erabiltzen dela uste izan-arren
Jende askoren ustezarabera
Ipuina debekatu zen umeentzako egokia ez izateagatik-lako

5. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman: *era, modukoa, denok, garaian, beharrezko* (Puntu bat).

6. Jar itzazu lehen aldiaren testuan aipatzen diren aditz hauek: *dakiten, ditzakegu, daitezke, dio* (Puntu bat).

Idazlana

Uste duzu zentsura justifika daitekeela? Zergatik da hain zaila erabaki bat hartzea umeentzako programetan agertzen diren biolentzia eszeneri buruz? (Idatzi honi buruz 20 lerro gutxienez) (4 puntu)

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (A eredu)
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (B aukera)
2008/2009 IKASTAROA

ARGIBIDEAK:

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.
Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

<<Umerik ez duen etxea, tristea>>, dio euskal esaera zahar batek. Haur jaioberriek poza ekartzen dute etxera, eta horrexegatik, orain lehen bezalatsu, haien etorrera ospatzeko ohitura dugu.

Lehenengo sasoietan, **haurra** jaiotzen, amari adiskideak hurrengo hamabost egunetan joaten zitzaizkion bisitan, eta oparixoren bat eramaten zioten: txokolatea, azukre koskorrak, oiloren bat... Hala ere, bisitan joaten zirenak ezin ziren inola ere beltzez jantzita agertu; hori eginez gero, ama eta **haurra** hiltzeko arriskuan jarriko zituzketen-eta. Gaur egun, lehen bezala, **haurra** jaiotzean, senide eta lagunak bisitan joaten zaizkio amari, baina oparia haurrarentzat izaten da gehienetan, eta ez dio **axola** zer koloretako arropak dituzten **soinean**, gaur egun ez baitugu lehenengo sineskeria hura kontuan hartzen.

Egia esan, **garai** hartako siniskeriek kalte handiak eragin zituzketen. Pentsa umea egin eta asmo txarreko norbait goitik beheraino beltzez jantzita joaten zitzaiola amari. Hura egonezina etxekoentzat! Susto galanta hartuko zuketena eta oinazetan egongo ziratekeen, ama, **haurra** edo biak hilko zirela pentsatuz.

Gezurra badirudi ere, horrelako siniskeria asko zituzten antzinako euskaldunek. Esate baterako, beste sineskeria batek zioenez, asteazkenean eta ostiralean **jaiotzen** ziren **haurrak** zorigaitzokoak izango ziren bizitza osorako. Hori erokeria! Asteko egun batean edo bestean jaiotzeak gure patuan eragina izango balu bezala. Ala, bai?

Ohituak ohitura, hobe sineskeriak alde batera uztea!

Ulermen galderak

1. Zer dio euskal esaera zahar batek? (Puntu bat)
2. Zein sineskeria zuten lehenagoko euskaldunek asteko egunekin erlazionaturik? (Puntu bat)
3. Zein ideia azaltzen da irakurgaiaren bukaeran, laburpen moduan? (Puntu bat)

Gramatika galderak

4. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berriatzi azpimarraturik dauden perpausak, egitura honi jarraiki (1'5 puntu).

Asmo txarreko norbait-n norbait
Gezurra badirudi ere	Nahiz eta.....
Hori eginez geroba.....
Bisitan joaten zirenak-n jendea.
Gaur egun, ez baitugu lehengo sineskeriak.-lako

5. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman: *haurra, poza, axola, soinean, jaiotzen, garai*. (1'5 puntu).

Idazlana

Zertan sinisten duzu zuk? Segitzen dituzu horrelako siniskeriak edo ohiturak urte zahar egunean edo Donibane egunean? Zein motatako siniskeriak dituzu? (Idatzi honi buruz 20 lerro gutxienez) (4 puntu)